

EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

1

Agiri honetan jasotzen dira 2018.urtean Spri Taldeko *Euskara Planaren* esparruan egindako jardun guztiak, baita adierazleak ere.

I - EUSKARA BATZORDEKO LANTALDEA

Euskara Batzordeko lantaldeko kideak:

- SPRI = Maite Hernandez, Izaskun Arregi eta Jasone Aretxabaleta
- BASQUE TRADE = Isabel Garro eta Gontzal Barasorda
- SPRILUR = Ander Betzuen eta Olatz Larrauri
- ARRISKU KAPITALA = Idania Caminos
- PARKE TEKNOLOGIKOAK = Izaskun Arriaga

2018. urtean zehar 6 bilera egin ditu Batzordeko lantaldeak, urtean zehar egindako jardunak eta ekintzak proposatu eta antolatzeko.

II - EUSKARA BATZORDE OSOA

Euskara Batzorde Osoko kideak:

- Alexander Arriola
- Oskar Alberdi
- Iñaki Suarez
- Lantaldeko kideak

2018.urtean bi bilera egin ditu Batzorde Osoak, urteko estrategia garatu eta lantaldeak proposatutako jarduerari oniritzia emateko.

III - EKINTZA PLANA

2018an **KAFE SOLASALDIA** jarri da martxan: hileko ostiral baten kafe-tokian elkartu eta euskaraz hitz egin, kafe bat hartzen dugun bitartean.

BIZKAIA PLAZA eraikinean 6 kafe-solasaldi egin dira apiriletik abendura.

PARKE TEKNOLOGIKOETAN 8 kafe-solasaldi egin dira 2018an.



EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

2

BERRIPAPERA

Bere helburua, euskararen inguruan SPRI Taldeko sozietate guztietan egiten ditugun jardunen berri ematea. Ekainean argitaratu da lehen zenbakia eta abenduan bigarrena (paperezko banaketa urtarrean egin da).



MINTZAPRAKTIKA JARDUNAK

Mintzapraktika saio bat egin da: Makina Erremintaren biurteko azokara (BIEMH) bisita. Arrate Tellaetxe, BECeakoak egin du gidari lana. 12 pertsonak hartu dute parte saio honetan.



EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

3

HPS-EEE-SPRI + ENPRESAK Ekimena

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, EVE Euskal Energia Erakundeak eta SPRIk bat egin dute Industria arloan euskararen presentzia eta erabilpena handitzeko ekimen bat martxan jartzeko. Helburu hori betetzeko, EUSLAN proiektuan bidelagun izan ziren enpresak gonbidatu dira, behin ekimena martxan jarrita, beste enpresa batzuk parte hartzera gonbidatzeko asmoarekin.

2018ko maiatzaren 25ean egin da lehen bilera, honako partehartzaile hauekin:

HPS-EEE-SPRI:

- Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako Sailburuordea
- Iñigo Ansola, Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendari Nagusia
- Alexander Arriola, Spriko Zuzendari Nagusia
- Josune Zabala, HPS (Hizkuntza koordinazio eta ikerketa zuzendaria)
- HPSko teknikari bat
- Olatz Ajuria, Energiaren Euskal Erakundeko teknikaria
- Jasone Aretxabaleta, SPRIko teknikaria

ENPRESAK:

- MAIER: Ager Zallo
- ULMAS CONSTRUCCIÓN: Iraia Elortza
- CIKAUTXO: Gotzon Juaristi, Ramon Mendiguren
- EIKA: Miren Berasategi, Ibon Ibarzabal
- GOIZPER: Aitor Azkarate
- COPRECI: Jaime Bengoa
- DANOBAT: Jon Mugartegi
- ELAY: Anaje Narbaiza, Imanol Iparragirre
- ORKLI: Andoni Zubeldia

Lantalde desberdinak osatzeko proposamena jarri da mahai gainean eta hiru lan talde sortzea adostu da: INGURU DIGITALA, EUSKARAZKO PRODUKTUAK eta ERAKUNDE PUBLIKOEN PAPER. 2019an jarriko dira martxan lantaldeak.

HPSK, Energia Erakundeak eta SPRIk beste bi bilera egin dituzte urtean zehar, ekimen honen nondik norakoak aztertu eta estrategiak adosteko.

Honekin batera, Jaurlaritzak martxan jarritako **EREMU SOZIOEKONOMIKOAREN EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2019-2023** lantzeko prozesuan ere parte hartu dugu.



EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

4

EUSKARA IRIZPIDEA LAGUNTZA PROGRAMETAN

INNOBIDEAK eta BASQUE INDUSTRY 4.0 programetan “euskara” irizpidea sartu da: BIKAIN ziurtagiria duten enpresek 5 puntu gehiago lortuko dituzte euren proiektuaren ebaluazioan.

ULERRIZKETA eta EUSLE METODOLOGIAK

ULERRIZKETA: langile batzuk ulergile (gehienetan euskaraz egiten dio ulertzaileari) rola hartzen dute eta beste batzuk ulertzaile (ulergileak euskaraz egitea nahi du eta berak nahi duenean euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin dezake) rola. Eguneroko laneko elkarren arteko elkarriketa guztietan aplikatzen den metodologia da. 4 aste jarraian, atsedena eta beste 4 aste.

EUSLE: langile gehienek euskara gaitasuna nabarmena izanik, Eusle metodologia aplikatu da. Kasu honetan, guztiek dakite euskaraz, baina batzuk eusle izango dira (euskaraz arituko direnak), eta besteak entzule (euskaraz entzuteko konpromisoa hartzen dutenak). Eguneroko laneko elkarriketa guztietan aplikatzen den metodologia da. 4 aste jarraian, atsedena eta beste 4 aste.

SPRI - Aplikatutako metodologia: Ulerrizketa

Parte hartzaile kopurua: 13

Partaideen profila: zerbitzu eta lanpostu desberdinetako langileak

Formakuntza jaso (4 ordu): irailak 27 eta 28

Hasiera data: urriak 1

Emaitza: Ulerrizketa metodologia hasi aurretik erantzundako mintzagramaren arabera, lantokiko harreman gehienak gaztelania hutsean ematen ziren. Metodologia 2 hilabetez aplikatu ondoren, mintzagramak kolore gehiago hartu ditu. Lantoki barneko hizkuntza ohiturak aldatu dira neurri batean, eta euskara gehiago erabiltzen da.

Esperientzia baloratu duten partaide guztiek **balorazio positiboa** egin dute.

Metodologia uneoro aplikatzeko **zailtasunak** aipatu dituzte batzuek, baina egindako esfortzuarekin eta ikusitako emaitzekin gustura agertu dira denak

PARKE TEKNOLOGIKOAK - Aplikatutako metodologia: Ulerrizketa

Parte hartzaile kopurua: 23

Partaideen profila: zerbitzu eta lanpostu desberdinetako langileak

Formakuntza jaso (4 ordu): urriak 18

Hasiera data: urriak 18

EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

5

SPRILUR – Aplikatutako metodologia: Eusle

Parte hartzaile kopurua: 11

Partaideen profila: zerbitzu eta lanpostu desberdinetako langileak

Formakuntza jaso (ordu 1): Irailak 27

Hasiera data: irailak 27

ZANGA PROIEKTUA



Spri taldean hainbat langile daude euskara ikasten. Formakuntza hori langilearentzat onuragarri izanik, erakundearentzat ere balioa behar du izan. Horregatik, ikasitakoa lanpostuetan erabiltzeko prozesua jarri da abian **Zanga** programaren bidez.

Xede taldea: Euskara prestakuntza jasotzen dutenak, aurreko ikasturtean jaso dutenak edota *ulerrizketa* metodologian parte hartzen ari direnak. Zerrenda egin eta proposamena egin zaie.

Prozesu honekin lortu nahi diren helburuak:

- Zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna areagotzea
- Erabilera igotzea
- Euskarari indarra eta presentzia ematea
- Eredu izatea

Partaide kopurua = 7 pertsona

MATERIALEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA IV. KONGRESUA

Ceit-IK4-k eta Tecnun-Nafarroako Unibertsitatea-k elkarlanean Materialen Zientzia eta Teknologiaren alorrean euskaraz egiten den topaketa antolatu dute. Ekimen honek Euskal Herriko produkzio zientifikoaren eta teknologia berrien erakustoki bihurtzea du helburu. Halaber, material aurreratuekin fabrikatutako produktu eta prozesu berritzaile zein adimentsuen behatoki eta eragile ere izan nahi du. Uztailaren 3an enprekin egindako mahai inguruaren moderatzaile lana egin du SPRIk.



EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

6

BIKAIN ZIURTAGIRIEN BANAKETA EKITALDIA

Aurten SPRIk presentzia izan du ekitaldian, antolatzaileek ekitaldian parte-hartzera gonbidatu gaituzte BIKAIN ziurtagiaiairen ebaluatzaile bezala dugun esperientzia kontatzeko.



ENPRESAREAN

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da Enpresarean proiektuaren bidez. 2018.urtean azoka urriaren 25ean egin da **"Pertsonak, digitalizazioa eta transformazioaren etorkizuneko erronka"** goiburupean. Diruz lagundu ditugu baina ezin izan dugu parte-hartze zuzenik izan, SPRIko Zuzendari Nagusiaren azken orduko bidaia baten erruz.

BESTE JARDUN ESANGURATSU BATZUK

- EUSKARALDIA ekimenean hartu dugu parte.
- BIKAIN ziurtagiriaren 10.urteurreneko kanpainaren hedapenean hartu dugu parte Parke Teknologien eskutik.
- CAF-ELHUYAR Sarien ekitaldian izan gara.
- Informatikari euskaldunen XI. Biltzarrean egon gara.
- Hizkuntzen Kudeaketa eta Kudeaketa aurreratuan hartu dugu parte.

EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

7

IV – EUSKARA SARIAK

2018an Euskara Saria nor/nortzuk jaso erabakitzeko metodo berri bat ezarri dugu: abenduaren hasieran mezua bidali zaie taldeko sozietateetako langile guztiei galdetuz nork merezi zuen, bakoitzaren iritziz, Euskara Saria jasotzea eta zergatik. 40 lankidek hartu dute parte eta 14 izen proposatu. Proposamenik gehien jaso duten lau pertsona izan dira sarituak: **Olatz Larrauri** eta **Mari Jose Barrios** (SPRILUR) eta **Itziar Urrutxua** eta **Jasone Aretxabaleta** (SPRI).

Beste bi sari egon ere egon dira, EGA profila lortu dutenak: **Nerea Barbadillo** eta **Ainhoa Ayesta** (Bizkaiko Parke Teknologikokoak).

Gainera, lankideek proposatu eta saririk lortu ez dutenei, oparitxo bat eman zaie. Eta Euskara Sarien nominazioan parte hartu duten 40 lagunen artean otzara eder bat zozketatu da: Nagore Lagok (Bizkaiko Parke Teknologikoa) irabazi du zozketa.



Abenduaren 21eko Gabonetako ekitaldian banatu dira 2018ko Euskara Sariak, Arantza Tapia sailburua bertan izanik.

EUSKARA PLANA



2018. URTEKO TXOSTENA

8

GABONETAKO POSTALA

Urteari amaiera ona emateko, azken kafe-solasaldiko lankideok hau prestatu genuen:

